



Asociación de Empresas
de Inserción del País Vasco
Gizarteratzeko eta Laneratzeko
Euskadiko Enpresen Elkarte

Gizatea Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkarte da, eta gizarte bidezkoagoaren zerbitzura dagoen ekonomia solidarioa garatzea du xede, gizarteratzeko eta laneratzeko enpresak sustatuz, gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonak enpleguko merkatu orokorrean laneratzeko aukerak sortzea helburu duen tresna gisa.

Gizateak modu kolektibo eta eraginkorrean gaintitu nahi ditu laneratzeko enpresek dituzten erronkak, enpresen arteko lankidetzak sustatuz, sektorea hobetu eta indartzeko laguntza emanez eta erakunde publikoen, eragile sozialen eta, oro har, gizartearen aurrean duten aintzatespena eta harremana sendotuz.

Proiektua gauzatzeko, une honetan profil teknikoa duen langile bat behar du gerentzia laguntzeko Urteko Kudeaketa Planaren akzioen garapenean

Lanpostuaren funtzioak

Gerentziaren zuzendaritzapean eta harekiko koordinazio estuan, hautatutako pertsonak Gizatearen Urteko Kudeaketa-Plana betetzen lagundu beharko du, lan-proiektuen kalitate teknikoa bermatuta. Honako zereginak bete beharko ditu:

a) Gizatea indartzea:

- Erakundeko atalek (Batzordea, Zuzendaritza Batzordea eta Lan Batzordeak) egindako proposamenak diseinatzeko, antolatze eta hedatzeko lagundu.
- Proiektuak kudeketarako lagundu.
- Elkartearen bizitza dinamizatzeko lagundu: Batzordea, Zuzendaritza Batzordea eta Lan Batzordeak.
- Barneko dokumentazioa, informazioa eta komunikazioa kudeaketarako lagundu (enpresa bazkideen artean eta Gizatea-k parte hartzen duen beste sare batzuekin).
- Komunikazio-plana ezartzen lagundu (web-orria, sare sozialak, komunikazio-materialak, katalogoak...)
- Gizateako Urteko Gizarte Txostena lantzeko lagundu.

b) Sektorearen hazkundearen bultzada:

- Gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen sektorea hazteko ekimenak garatzen lagundu: sektorea garatzeko aukera-nitxoak identifikatzea, erreserbatutako merkatuak garatzea, enpresa sektorearekiko aliantzak ezartzea,...
- Gizarteratze eta laneratzeko enpresen artean, eta/edo beste enpresa batzuekin, ahal dela ekonomia sozial eta solidariokoak, interlankidetzak esperientziak identifikatzea eta gizarteratze eta laneratzeko enpresa desberdinen arteko kolaborazioa partekatutako ekimen garapenean bultzatzen duten praktika onetako datu-base bat sortzea.

Eskatutako profila

- Unibertsitateko gradua edo Goiko Mailako Heziketa Profesionala, ahal dela, Gizarte Zientzien, Ekonomia eta Enpresaren, Marketinaren edo antzekoen eremuan.
- Lan-esperientzia lanpostuari esleitutako zereginak ahalik eta ondoen gauzatzeko beharrezko ezagutza bermatzen duten lanpostuetan.
- Hirugarren Sektore Sozialaren ezagutza eta esperientzia.
- Komunikazio tresnak eta sare sozialak ezagutza eta erabilera.
- Erabiltzaile-maila aurreratua ofimatikako tresnetan.
- Komunikaziorako jariora gaztelaniaz eta euskaraz
- Gidabaimena eta berezko ibilgailua

Honako hauek baloratuko dira:

- Indarrean dagoen legediari buruzko ezagutza, gizarteratze enpresen, enplegu eta gizarte inklusioaren esparruetan.

Gaitasunak

- Autonomia, ekimena eta antolatzeko gaitasuna.
- Konpromisoa eta lotura laneratzeko enpresen esparruarekin eta/edo enpleguko eta gizarte-inklusioko ekimenekin eta/edo ekonomia solidarioarekin eta/edo hirugarren sektore sozialarekin.
- Emaitzetaranzko orientazioa.
- Pertsona sustatzailea, dinamizatzailea.
- Komunikaziorako gaitasuna.
- Informazio-prozesuak aztertu, laburtu eta sortzeko gaitasuna.
- Entitate, enpresa, sare eta instituzio desberdinekin harremanak ezartzeko gaitasuna; izan ere, horien lankidetzeta eta babesa beharrezkoa da helburuak eta emaitzak garatzeko.

Lan profila

- Ordansaria: 1. taldea, Bizkaiako Esku-hartze Sozialaren Hitzarmenaren arabera.
- Lanaldi osoa.
- Kontratuaren iraupena: urte 1.
- Lanpostuaren kokalekua: Bilbo, astean bitan joaten da Gipuzkoara, proiektuen arabera.
- Aurreikusitako laneratzeko data: berehalakoa

Hautaketa-prozedura

- Interesdunek CVa bidal dezakete, honako helbide elektronikora: **gizatea@gizatea.net**
- Eskabideak aurkezteko epea **2020ko azaroaren 13an** amaituko da.

- Lanpostuaren profilera ondoen egokitzen diren hautagaiei soilik dei egingo zaie, eta, aurretiko hautaketa egin ondoren, amaierako hautaketarako elkarriketak egin ahal izango dira.

Hautaketa-prozesuaren politika

- Laneratzeko enpresen eta/edo enpleguko eta gizarte-inklusioko ekimenen eta/edo ekonomia solidarioaren eta/edo hirugarren sektore sozialaren esparruko enpresetako langileen sustapena.
- Emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna.
- EAEko bi hizkuntza ofizialetan lan egiteko gai diren pertsonen sustapena.